



PERTSONA FISIKOEI LAGUNTZAK NORGEHIAGOKA ARAUBIDEAN EMATEKO DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK, 14 URTETIK BEHERAKO SEME-ALABAK EDO DESGAITASUN FISIKOA EDO PSIKOLOGIKOA DUTEN SEME-ALABAK ZAINTEKO ORDUAN FAMILIEI LAGUNTZA EMATEN DIETEN PERTSONAK KONTRATATZEKO LAGUNTZEI ETA 14 URTETIK BEHERAKO SEME-ALABAK EDO DESGAITASUN FISIKOA EDO PSIKOLOGIKOA DUTEN SEME-ALABAK INSKRIBATUTA EGON DIREN UDALEKUETAKO GASTUA FINANTZATZEKO LAGUNTZEI BURUZKOAK

Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko irailaren 14ko erabakiaren bitartez, oinarri hauek onartzea eta argitaratzea ebatzi da: **PERTSONA FISIKOEI LAGUNTZAK NORGEHIAGOKA ARAUBIDEAN EMATEKO DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK, 14 URTETIK BEHERAKO SEME-ALABAK EDO DESGAITASUN FISIKOA EDO PSIKOLOGIKOA DUTEN SEME-ALABAK ZAINTEKO ORDUAN FAMILIEI LAGUNTZA EMATEN DIETEN PERTSONAK KONTRATATZEKO LAGUNTZEI ETA 14 URTETIK BEHERAKO SEME-ALABAK EDO DESGAITASUN FISIKOA EDO PSIKOLOGIKOA DUTEN SEME-ALABAK INSKRIBATUTA EGON DIREN UDALEKUETAKO GASTUA FINANTZATZEKO LAGUNTZEI BURUZKOAK**

ZIOEN AZALPENA

Alarma-egoera deklaratu zenetik herritarren osasuna bermatzeko bideratutako neurrien ondorioz sortu den egoera honetan, haurren hezkuntza eta hazkuntzari lotutako gizarte-baliabideak ikastetxeak ixteagatik neurri batean desitxuratu direla, ohiko udalekuak bertan behera geratu direla eta adingabeak zaintzeko aiton-amonen laguntza nahitaez eten dela kontuan izanda, familia asko gaur egun zaugarritasun-egoeran bizi dira hazkuntza eta zaintzei dagokienez.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Legean, honako hau ezarri da 9.2. artikuluan: Euskal botere publikoek, beroriei dagozkien alorretan: a) Hiritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilpen egokia zaindu eta bermatuko dute. b) Bizitzeko eta lan egiteko kondizioen hobekuntza ekar dezakeen politika bultzatuko dute bereziki. c) Enpleguaren gehikuntza eta ekonomiaren egonkortasuna sustatzen lagun dezaketen neurriak hartuko dituzte. d) Gizabanakoaren eta berori sartuko den taldeen askatasuna eta berdintasuna zinezkoa eta egiazkoa izan daitezen, diratekeen oztopoak erauzteko eta aldeko kondizioei eragiteko neurriak hartuko dituzte. e) Euskal Herriko politika, ekonomia, kultura eta gizarte alorretako bizitzan hiritar guztien parte-hartzea erraztuko dute.

Udalek EUDEL bitartez sinatutako familia eta haurtzaroaren aldeko euskal itunean, besteak beste, seme-alabak zaintzeko prestazioak nabarmentzen dira kontzilioz



erantzukidearen esparruan eta Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batzuen Konbentzioaren printzipioak abiapuntu hartuta, non adingabearen interes gorena hartzen den familiari eta haurrari buruzko oinarritzko gida gisa eta estatu kideei eskatzen zaien haurtzaroaren ongizaterako premiazkoa den babes eta zainketa ziurtatzea, gurasoen eskubideak eta betebeharrak aintzat hartuta.

Egoera horretan, Loiuko Udalak, oinarri hauen bitartez, udalerriko haurren ongizatea bermatzeko irtenbideak ematen parte hartu nahi du familiaren eta lanaren kontziliazioa errazteko dirulaguntza bat sortuz.

1.- OINARRI ARAUTZAILEAK ETA ARAUDI APLIKAGARRIA

Deialdi hau arautzeko oinarri arautzaileak Loiuko Udalaren Dirulaguntzetako Ordenantza Nagusian jaso dira, 2020/06/15eko Osoko Bilkurako erabaki bidez onartutakoa (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 157. Alean, 2020-08.18an).

Oro har, deialdi hau arautzeko aintzat hartuko diren oinarri arautzaileak jaso dira azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean (aurrerantzean DLO) eta garapen erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez onartutakoa, eta Udal Aurrekontua Betearazteko Arauetan, 2020ko ekitaldiari dagokionez, eta, horien ordeztu, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, baita duen izaera dela medio aplikagarria izan daitekeen beste edozein xedapen arautzaile ere.

Dirulaguntza hauen kudeaketan publizitate, lehia, gardentasun, objektibotasun, berdintasun eta bereizketarik ezaren printzipioak zainduko dira, baita helburuak lortzeko eraginkortasun eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzean efizientzia printzipioak ere.

2.- OINARRI ARAUTZAILEEN ETA DEIALDI HONEN XEDEA

COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz deklaraturako alarma-egoera (463/2020 ED) dela eta, bai eta familia-antolaketan eragin berezia izan duten neurriak hartu behar izan direla kontuan hartuta ere (ikastetxeak ixtea, Loiuko udalekuak bertan behera uztea), orain ohiko lan-jarduera eta seme-alaba adingabeak eta desgaituak zaintzeko eta arreta emateko premiak uztartzeko arazoak sortu dira. Egoera zail hori ikusita, Loiuko Udalak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluan jasotako eskumenak erabiliz, berariazko laguntza-lerro bat abiaraztea erabaki du, lana eta familia kontziliatzeko arazoak dituzten familiei laguntzeko.

3.- AURREKONTU KREDITUA



Dirulaguntza hauek ematera bideratutako kopurua, guztira, 90.000,00 eurokoa izango da, indarrean dagoen udal aurrekontuari dagokionez, 2300 48000 aurrekontu aplikazioaren kargura.

4.- LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Pertsona fisiko eta familia-unitate bakoitzak 500,00 euroko gehieneko kopurua jaso ahal izango duela ezarri da, 14 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasun fisikoa edo psikologikoa duten seme-alabak zaintzeko eta arreta ematen laguntzeko pertsonak edo zerbitzua kontratatuzko gastuak arintzeko.

-

- 500,00 € pertsona fisiko edo familia-unitate bakoitzeko, 14 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasun fisikoa edo psikologikoa duten seme-alabak beste entitate batzuek antolatutako udalekuetan inskribatzeko gastuak arintzeko.

Onuradunek jasoko dituzten zenbatekoen banaketa 9. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoaren arabera ezarriko da.

5.- ONURADUN IZATEKO BALDINTZAK

Onuradunak pertsona fisikoak izan beharko dira, eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan oro har ezarritako irizpideez gain, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

5.1.- Eskatzailea Loiuin errolatuta egon beharko da, 2020ko apirilaren 1a baino lehen.

5.2.- Eskatzaileek 14 urtetik beherakoak edo desgaitasun fisiko edo psikikoak dituzten seme-alabak eduki beharko dituzte beren kargura, eta lan-egoera aktiboan egon beharko dute.

14 urtetik beherakotzat joko dira 2007 eta 2020 urteen artean jaio diren umeak, bi urte horiek barne. Desgaitasun fisiko edo psikikoa duten pertsonatzat joko dira, bestalde, ehuneko 33ko desgaitasun-maila edo altuagoa aitortuta duten pertsonak.

5.3.- Lan-egoera aktiboa:

5.3.1. Familia-unitatea guraso bakarrekoa bada, eskatzaileak besteren konturako langilea izan behar du, aurrez aurreko modalitatean edo erdi aurrez aurreko modalitatean. Azken kasu horretan, lanaldi osoko kontratua badu, gutxienez lanaldi erdia aurrez aurrekoa izan beharko da. Lan-kontratua lanaldi erdikoa baldin bada, lanaldi hori aurrez aurrekoa izan beharko da.



5.3.2. Familia-unitate berean adingabearen zaintza eta kustodia betetzen duten bi pertsona bizi badira, horietako batek gutxienez lanaldi osoan egin behar du lan eta besteak lanaldi erdian edo altuagoan. Egoera hori egiaztatzeko, enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Gurasoetako bat langile autonomoa bada, besteak lanaldi osoko kontratua eduki beharko du.

5.3.3. Zaintzak egiteko pertsona edo enpresa bat kontratatu bada, kontratazio horren iraupena gutxienez 30 egun naturalekoa izan beharko da, 2020ko apirilaren 1aren eta 2020ko urriaren 30aren artean.

5.3.4. Laguntza hauek eskatzen dituztenek egunean izan beharko dituzte Loiu Udalarekiko zerga betebeharren ordainketak, laguntza eskatu aurretik. Horrez gain, Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko zerga betebeharrak edo dirulaguntzak ematearen ondoriozkoen ordainketak egunean izan beharko dituzte, eta ezin dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan ezarritako inguruabarretan egon.

6.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA

Deialdi honetan araututako dirulaguntzak lortzeko eskabide-eredu normalizatua www.loiu.eus udal-webgunean egongo da eskuragarri.

Eskabideak eta prozedura honetan parte hartzeko beharrezko dokumentazioa aurkezteko epea deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean”(BAO) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera abiaraziko da eta dauden funtsak agortzen diren egunean amaituko da edo, bestela, 2020ko azaroaren 1ean.

Dirulaguntzaren eskabidea ezarritako epetik kanpo aurkeztea, ez onartzeko arrazoia izango da.

7.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Honako hau da diruz lagundu daitekeen gastua:

7.1.- Laguntza honetan aipatzen diren haurrei arreta eta zaintza emateko soilik kontratatzea langile edo zerbitzu bat, astean 20 orduko lanaldian edo altuagoan. Eskatzaile eta familia-unitate bakoitzeko gehienez ere 500,00 euroko muga ezarri da, betiere zenbateko horretako edo altuagoko gastuak justifikatzen badira. Hala egin ezean, justifikatutako gastuen zenbatekoaren baturaren parekoa izango da laguntza.

7.2.- Eskatzaileak edo familia-unitateak egin dituen gastuak, laguntza honetan aipatzen diren haurrak beste erakunde batzuek antolatutako udalekuetan inskribatzeko orduan. Eskatzaile eta familia-unitate bakoitzeko gehienez ere 500,00 euroko muga ezarri da,



betiere zenbateko horretako edo altuagoko gastuak justifikatzen badira. Hala egin ezean, justifikatutako gastuen zenbatekoaren baturaren parekoa izango da laguntza.

Diruz lagundu daitezkeen 7.1. eta 7.2. apartatuetako gastuak ezin izango dira inolaz ere pilatu.

Laguntza horiek bateragarriak izango dira beste edozein erakunde publiko edo pribatutatik datorren beste edozeinekin; betiere, kontzeptu horren gisa jasotako zenbatekoen baturak egindako gastua gainditzen ez duela adierazten duen adierazpena egiten bada.

8.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

8.1.- Eskabide-eredu normalizatua, behar bezala beteta eta eskatzaileak sinatuta.

8.2.- Zaintza eta kustodia betetzen duten pertsonen eta familia-unitatea osatzen duten pertsonen nortasunaren egiaztagiria.

8.3.- Ezkontza-harremanen edo izatezko bikoteen kasuan, egoera hori egiaztatu beharko da.

8.4.- Dibortzio edo banaketa kasuetan, zaintza-mota eta adingabearekin bizikidetzan egiten diren aldiak jasotzen dituen zinpeko aitortpena.

8.5.- Laguntzaren eskatzailearen eta zaintzailea edo zerbitzua behar duen adingabearen artean seme-alaben, adopzioaren, tutoretzaren, adopzio-xedeko zaintzaren edo harrera iraunkorraren harremana dagoela egiaztatzen duen agiria (familia-liburua, erregistroko inskripzioa, administrazioaren ebazpena edo agiri baliokidea).

8.6.- Lan-egoera egiaztatzen duen dokumentazioa: Enpresaren ziurtagiria, lan-kontratua indarrean dagoela egiaztatzen duena, gutxienez zaintzarako zerbitzua kontratatu den unean. Bertan, honako hauek zehaztu beharko dira: lanaldi-mota, lan-modalitatea (aurrez aurre, erdi aurrez aurre edo telelana), eta, erdi aurrez aurrekoa balitz, lanaldiaren denbora bi modalitateen artean zelan banatzen den. Langile autonomoak badira, gizarte-segurantzara egindako kotizazio-ordainketen egiaztagiria, laguntza eskatu baino sei hilabete lehenagokoak.

8.7.- Zerbitzu horiek ematen dituen enpresarekin sinatutako kontratua, edo haurrak zaintzeko kontratatu den pertsonaren Gizarte Segurantzako altaren egiaztagiria, bai eta ordainketaren egiaztagiria ere, kontratatutako pertsona edo enpresa argi eta garbi adierazten duena.



8.8.- Laguntza sartu beharko den banku-kontuaren titulartasunaren egiaztagiria (banku-libretaren lehen orriaren fotokopia, banku-ziurtagiria, banku-ordainagiria — titularra eta kontu-zenbakia adierazita—, titulartasun hori egiaztatzen duen baliozko beste edozein dokumentu).

8.9 Eskabide hau aurkezten den unean, Estatuko, autonomia erkidegoko eta foru mailako Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak eguneratuta dituela ziurtatzen duen erantzukizunpeko adierazpena (eskabidearen eredu normalizatua jasota).

8.10.- Eskatzaileak dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galarazten duen zigor- edo administrazio-zehapenik ez duela, eta horretarako gaitasun barik uzten duen legezko debekurik (bereziki, nabarmenduta emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren azken xedapenean sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik aipatutakoak) ez duela ziurtatzen duen erantzukizunpeko adierazpena (eskabidearen eredu normalizatua jasota). Adierazpen horretan ziurtatu beharko da, era berean, emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan, eskabidean eta harekin batera aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen egiazkotasunari buruz, eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzeari buruz, ez daukala irekita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek hasitako itzulketa- edo zehapen-prozedurarik.

8.11.- Beste erakunde edo organismo publiko edo pribatu batzuei helburu bererako eskatutako dirulaguntzak jasotzen dituen adierazpena (eskabide-eredu normalizatua jasota).

Beharrezkotzat jotzen badu, organo ebaluatzaileak egokitzen jotzen duen beste edozein agiri eskatu ahal izango du. Eskatutako dokumentazio osagarria ez bada aurkezten horretarako ematen diren epeen barruan, deialditik kanpo geratuko da. Aurkeztutako dokumentazio guztiak indarrean egon beharko du eskabidea aurkezten den egunean.

9.- PROZEDURA ETA PROZEDURAREN INSTRUKZIOA

9.1. Deialdi honetan araututako dirulaguntza DLOaren 22.1. artikuluan eta 23tik 27ra bitarteko artikuluetan eta dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 14. artikuluan xedatutakoaren arabera emango da. Prozeduraren instrukzioa Udaleko ekonomialariak egingo du, eta, hala, ofizio bidez egingo ditu datuak zehaztu, jakin eta egiaztatzeko egokitzen jotzen dituen jardura guztiak, eta horiek oinarri hartuta egin beharko da ebazpen-proposamena. Alkateak edo berak eskuordetzen duen pertsonak (presidente gisa jardungo duena), udalbatzako idazkari nagusiak edo berak eskuordetzen duen



pertsonak (idazkari gisa jardungo duena) eta Alkatetzak izendaturiko udal teknikari batek osaturiko balorazio mahai bat izendatuko da.

9.2. Dirulaguntza hau norgehiagoka araubidean emango da.

9.3. Balorazio- eta esleipen-irizpideak. Oinarri hauen 5. apartatuan ezarritako baldintza orokor eta espezifikoko guztiak betetzea da laguntzak adjudikatzeko irizpide bakarra.

9.4. Balorazio-mahaiak deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera ebaluatuko ditu eskabideak. Horretarako, organo horrek txosten bat egingo du, eta mahaiko kide guztiek sinatu beharko dute. Txosten horretan, honako hauek jasoko dira:

a) Eskabidea aurkezteagatik onuradun gisa proposatuak izan diren pertsona eskatzaileak, deialdian eskatutako baldintza eta dokumentazio guztiak betetzen dituztenak.

b) Deialdian ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileak, horien eskabidea ezetsia izan dela adieraziz.

c) Deialdiaren 8. puntuan eskatzen diren agiri guztiak aurkeztu ez dituzten eskatzaileak, eskatzen diren agiriak zein diren adierazita. 10 egun balioduneko epea emango zaie egoki deritzotena alegatzeko, edo, hala badagokio, eskabidea zuzentzeko eta eskatutako dokumentazioa aurkezteko.

9.5. Instrukzio-zerbitzuak, balorazio-mahaiaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, eta udalaren webgunean eta udaletxeko ediktuen ohelean argitaratuko da, jakinarazpenetarako. Dirulaguntzara bideratutako zenbatekoa (90.000,00 euro) nahikoa ez bada dauden eskaera guztiei erantzuteko, proportzionalki banatuko da baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen artean.

9.6. Eskatutako eskabideak alegatzeko eta zuzentzeko ezarritako epea igaro ondoren, eta Balorazio Mahaiak berriz ere horren berri eman ondoren, instrukzio-organoak beste txosten bat bidaliko du organo eskudunari, onar dezan eta gero argitara dezan.

9.7. Erabakia udalaren webgunean eta udalaren ediktuen ohelean argitaratuko da, eta argitalpen horrek jakinarazpen-ondorioak izango ditu.

9.8. Dirulaguntzak emateko erabakian honako hau jasoko da: batetik, dirulaguntzak eman direla, dirulaguntzaren zenbatekoa berariaz finkatuz, eta, hala badagokio, dirulaguntzen onuradunak bete behar dituen baldintzak, betebeharrak eta zehaztapen osagarriak bilduz, eta, bestetik, gainerako eskabideak berariaz ezetsi direla, hala badagokio.



9.9. Erabakia ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Amaiera emango dio administrazio-bideari, eta haren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo berean, edo zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, jurisdikzio hori arautzen duen legean aurreikusitako moduan eta epeetan. Tokiko gobernu-batzarrak du deialdia onartzeko eskumena (ekainaren 18ko 565/19 Dekretua). Tokiko Gobernu Batzarra ere izango da dirulaguntzak emateko organo eskuduna (ekainaren 18ko 565/19 Dekretua).

10. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Honako hauek dira onuradunen betebeharrak:

10.1.- Eskabidean jasotako datuak aldatzen badira, hori Udalari jakinarazi beharko zaio.

10.2.- Udalarekin lankidetzan aritzea egiten diren ikuskapen- eta egiaztapen-jarduera guztietan, laguntzaren xede nagusia ziurtatzeko.

10.3.- Dirulaguntza jaso duten jarduerak finantzetako beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu badira, hori Udalari jakinarazi beharko zaio.

10.4.- Jasotzen diren funtsak aplikatzeko egiaztagiria gorde beharko dituzte, agiri elektronikoak barne, agiri horiek guztiak egiaztatu eta kontrolatzekoak direlako.

10-5.- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan eta araubidearen 28. artikuluan eta hurrengoetan azaltzen diren inguruabarretan jasotzen diren funtsak itzultzea.

Laguntza eskatzeko emandako informazioa ezkutatu edo faltsutzen bada, edo betebehar horiek betetzen ez badira, eskabidetik kanpo geratuko da, edo, hala badagokio, laguntzaren zenbatekoa itzultzeko erreklamazioa egingo da.

Zehapen horiek dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean aurreikusitakoaren arabera zehaztuko dira.

11.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

11.1.- Laguntzen zenbatekoa eskabide-inprimakian emandako banku-kontuaren zenbakira transferituko da zuzenean. Kontu hori laguntza eskatu zuenaren izenean egon behar da. Transferentziarekin batera, banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria erantsi beharko da (banku-libretaren lehen orriaren fotokopia, banku-ziurtagiria, banku-ordainagiria —titularra eta kontu-zenbakia adierazita—, titulartasun



hori egiaztatzen duen baliozko beste edozein dokumentu; ez da onartuko pantaila-argazkirik).

Dirulaguntza eskatzen eta ordaintzen den unean, onuradun izan diren pertsona guztiek ordainduta izan beharko dituzte Udalarekin eta beste edozein administrazio publikorekin zituzten zorrak. Loiuko Udalak edozein unetan egin ahal izango ditu dirulaguntzaren helburua betetzen dela ziurtatzeko beharrezkoak diren egiaztapenak.

11.2.- Deialdi honetan zehaztutako betebeharrak betetzen ez badira, Kudeaketa Zerbitzuak administrazio-espeditentea hasiko du, ofizioz. Espediente horrek, interesdunari entzun ondoren, justifikatu gabeko funtsak itzultzeko prozedura hastea proposatuko dio dirulaguntza eman zuen organoari, dagozkion berandutze-interesen likidazioarekin batera.

12. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

12.1. Jasotako zenbatekoa itzultzeko, hala dagokionean, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren II. tituluan, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren III. tituluan eta dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren III. tituluan xedatutakoa bete beharko da.

12.2. DLOaren 36. artikuluan jasotako emakida-ebazpenaren baliogabetasun-arrazoiekin batera, jasotako zenbatekoak, osorik edo zati batean, itzuli beharko dira, eta, horrez gain, dirulaguntza ordaintzen den egunetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den arte dagokion berandutze-interesa eskatuko da, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan oro har aurreikusitako kasuetan.

12.3. Dirulaguntza itzultzeko prozeduraren hasteko eskubideari kalterik egin gabe, dirulaguntza jasotzeko betebeharrak betetzen ez baditu, pertsona onuradunak horren berri eman ahal izango dio organo kudeatzaileari sarrera-erregistroaren bidez, eta jasotako zenbatekoa borondatez itzuli ahal izango du. Horretarako, harremanetan jarri beharko da Kudeaketa Zerbitzuarekin, jarraitu beharreko izapideen ondorioetarako. Era berean, berandutze-interesak kalkulatu dira, harik eta itzulketa gauzatzen den arte.

Oinarri arautzaileak "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera jarriko da indarrean. Loiu, 2020ko irailaren XX(e)(a)n.— Alkatea, Josu Andoni Begoña Fdez. de Arroiabe.



Loiu Udala Ayuntamiento de Loiu
